

Bidaia-arien sarrerak %11 eta gualdiak %12 jaitsi ziren 2008ko abenduan

2008ko balantzean, bukaeran, sarrerak %3 gutxitu dira eta gualdiak %4, hotel-establezimenduetan. Nekazal-turismoetan, berriz, sarreren eta gualdien balantzea positiboa da

Eustatek eskainitako datuen arabera, 2008ko abenduan 126.390 bidaia-ari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 15.000 sarrera gutxiago, hots, %11 gutxiago. Hiru lurraldeetan jaitsi ziren bidaia-arien sarrerak: 2007ko abenduko datuen aldean, Araban %-9, Bizkaian %-12 eta Gipuzkoan %-10.

Estatutik etorritako bidaia-arien sarrerak %-9 jaitsi ziren eta atzerriko bidaia-arienak, oster, %-16. Estatutik datozen bidaia-arien kopurua hiru herrialdeetan jaitsi da : Bizkaian %-7; Gipuzkoan eta Araban %-10. Atzerritarrak %-24 urritu dira Bizkaian; jaitsi, baita ere, baina gutxiago (%-10) Gipuzkoan, eta jaitsiera oso arina da (%-2) Araban.

Estatutik etorritako bidaia-arien artean, gehitu egin ziren, batez ere, Asturiastik eta Nafarroatik etorritakoak. Gutxitu egin ziren, besteren artean, Kataluniatik, Madrildik, eta Gaztela-Mantxatik etorritakoak. Atzerritarren artean esan liteke lurralde guztietatik etorritakoak gutxitu direla, batez ere Frantzia, Erresuma Batua, Portugal eta Italiatik. Gora egin dute Iberoamerika, Suedia, eta Afrika, Asia eta Ozeaniako zenbait lurraldetatik etorritakoak.

2008ko abenduan erregistraturiko gualdiak 226.434 izan ziren, hau da, iazkoaren aldean %-12ko jaitsiera eta ia 30.000 gualdi gutxiago. Gualdiek urte batetik bestera bilakaera negatiboa izan dute hiru lurraldeetan: Araban %-5, Bizkaian %-13 eta Gipuzkoan %-12.

Urte arteko aldi horretan, Euskal AEn batez besteko egonaldiak %-1 egin du atzera: 2007ko abenduan 1,81 egunekoa izan zen eta joan den abenduan 1,79koa.

Plazakako betetze-maila 2007ko abenduko %37,97tik 2008ko abenduko %31,15era murriztu zen, eta gelakako betetze-maila %46,34tik %38,01era.

2008ko hotel-establezimenduen urteko balantzea: iaz baino %-3 sarrera eta %-4 gualdi gutxiago

2008an bidaiarien sarrerak 2.020.446 izan dira, alegia, aurreko urtean baino 73.000 gutxiago. Halere, **elkarren segidako hirugarren urtez, bi milioi bisitariren kopurua gainditu da Euskal AEko hotel-establezimenduetan**. Arabara heldutako bidaiari kopurua %-5 gutxitu da, eta Gipuzkoara eta Bizkaia %-3.

2008ko gualdiak 3.789.563ra iritsi dira, hau da, aurreko urtean baino 167.000 gualdi gutxiago, eta bilakaera negatiboa izan dute hiru herrialdeetan: Araban %-5, Bizkaian (%-4) eta Gipuzkoan (%-5).

Bidaiarien batez besteko egonaldia aurreko urteko 1,89tik 2008ko 1,88ra pasatu da. Euskal AE osorik hartuta, betetze-maila 2007ko %46,94tik 2008ko %44,16ra pasatu da.

1. taula: Urteko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2008	2007	Δ %	2008	2007	Δ %	2008	2007	Δ %	2008	2007	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK												
GAUALDIAK	3.789.563	3.956.867	-4	506.463	533.437	-5	1.761.063	1.826.987	-4	1.522.037	1.596.443	-5
BIDAIARIEN SARRERAK	2.020.446	2.093.346	-3	291.670	307.661	-5	963.042	994.357	-3	765.734	791.328	-3
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,88	1,89	-1	1,74	1,73	0	1,83	1,84	0	1,99	2,02	-1
BETETZE-MAILA	44,16	46,94	-6	40,41	43,03	-6	43,69	45,57	-4	46,15	50,18	-8

Iturria: Eustat

NEKAZALTURISMOA

Abenduan gehitu egin dira bidaiarien sarrerak (%6) eta gualdiak urritu (%-1).

Euskal AEko nekazal-turismoko establezimenduetan, 8.889 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den abenduan, aurreko urteko hil berean baino %6 gehiago.

Euskal AEko nekazal-turismoko establezimenduetan egindako gualdiak 22.007 izan ziren abenduan, joan den urteko hil berean baino %-1 gutxiago.

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia 2,64 egunetik 2,48ra jaitsi da Euskal AE osoan, eta plazen betetze-maila %-14 jaitsi da, 2008ko abenduan %19,53an izan delarik. Gelen betetze-mailak behera egin du, urte arteko %-11 hain zuzen ere.

2008ko nekazal-turismoaren urteko balantzea: Gehitu egin ziren bidaiarien sarrerak, %4 eta gualdiak, %1

Euskal AEko nekazal-turismoko establezimenduetan, 112.341 bidaiari-sarrera izan dira 2008an, aurreko urtean baino %4 gehiago. Gualdiak 326.158 izan dira, hots, 2007an baino %1 gehiago.

Hiru lurraldeetan gehitu ziren bidaiarien sarrerak: Araban %6, Gipuzkoan %4 eta Bizkaian %3. Gualdiek gora egin dute Araban (%5), jaitsi Bizkaian (%-2) eta berdin jarraitu Gipuzkoan (%0).

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldia 2007an 3 egunekoa izatetik 2008an 2,90 izatera jaitsi da. Betetze-mailak ere okerrera egin du: 2007an %27,00koa izan zen eta 2008an %26,29koa.

2. taula: Urteko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2008	2007	Δ %	2008	2007	Δ %	2008	2007	Δ %	2008	2007	Δ %
NEKAZALTURISMOA												
GAUALDIAK	326.158	324.493	1	52.696	50.034	5	100.424	102.128	-2	173.038	172.331	0
BIDAIARIEN SARRERAK	112.341	108.163	4	20.467	19.328	6	36.471	35.419	3	55.403	53.416	4
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,90	3,00	-3	2,57	2,59	-1	2,75	2,88	-5	3,12	3,23	-3
BETETZE-MAILA	26,29	27,00	-3	22,36	22,50	-1	24,17	25,43	-5	29,35	29,83	-2

Iturria: Eustat

3. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	2008 12	%	2007 12	%	Δ %	2008 12	%	2007 12	%	Δ %	2008 12	%	2007 12	%	Δ %	2008 12	%	2007 12	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	226.434	100	255.924	100	-12	35.507	100	37.322	100	-5	104.737	100	120.438	100	-13	86.190	100	98.164	100	-12
Estatukoak	169.587	75	192.430	75	-12	27.634	78	31.085	83	-11	77.990	74	86.943	72	-10	63.963	74	74.402	76	-14
Atzerrikoak	56.847	25	63.494	25	-10	7.873	22	6.237	17	26	26.747	26	33.495	28	-20	22.227	26	23.762	24	-6
Hiriburua	140.530	62	155.597	61	-10	27.293	77	27.719	74	-2	68.070	65	79.352	66	-14	45.167	52	48.526	49	-7
Litoral	20.566	9	28.132	11	-27	-	-	-	-	-	7.951	8	8.610	7	-8	12.615	15	19.522	20	-35
Barnealdea	65.338	29	72.195	28	-9	8.214	23	9.603	26	-14	28.716	27	32.476	27	-12	28.408	33	30.116	31	-6
BIDAIARIEN SARRERAK	126.390	100	141.430	100	-11	19.102	100	20.899	100	-9	60.988	100	68.934	100	-12	46.300	100	51.597	100	-10
Estatukoak	97.800	77	107.241	76	-9	15.589	82	17.308	83	-10	47.340	78	50.992	74	-7	34.871	75	38.941	75	-10
Atzerrikoak	28.590	23	34.189	24	-16	3.513	18	3.591	17	-2	13.648	22	17.942	26	-24	11.429	25	12.656	25	-10
Hiriburua	79.006	63	86.441	61	-9	14.435	76	14.903	71	-3	39.522	65	44.306	64	-11	25.049	54	27.232	53	-8
Litoral	12.091	10	14.039	10	-14	-	-	-	-	-	4.396	7	4.992	7	-12	7.695	17	9.047	18	-15
Barnealdea	35.293	28	40.950	29	-14	4.667	24	5.996	29	-22	17.070	28	19.636	28	-13	13.556	29	15.318	30	-12
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,79		1,81		-1	1,86		1,79		4	1,72		1,75		-2	1,86		1,90		-2
BETETZE-MAILA PLAZAKA	31,15		37,97		-18	32,59		37,22		-12	29,89		37,27		-20	32,21		39,19		-18
Hiriburua	34,63		40,96		-15	38,13		40,08		-5	33,07		41,49		-20	35,16		40,64		-13
Litoral	26,79		37,39		-28	-		-		-	25,27		30,06		-16	27,85		41,90		-34
Barnealdea	26,75		32,99		-19	21,99		30,85		-29	25,39		31,46		-19	30,27		35,64		-15
BETETZE-MAILA GELAKA	38,01		46,34		-18	40,50		42,82		-5	37,80		46,07		-18	37,24		48,22		-23
Hiriburua	42,49		49,11		-13	49,01		45,85		7	41,47		49,21		-16	40,36		51,02		-21
Litoral	30,99		42,29		-27	-		-		-	31,54		36,31		-13	30,58		46,24		-34
Barnealdea	32,38		42,41		-24	23,09		33,95		-32	32,62		42,43		-23	35,87		45,08		-20
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	22.007	100	22.176	100	-1	4.612	100	4.339	100	6	7.193	100	6.991	100	3	10.202	100	10.846	100	-6
Estatukoak	19.788	90	20.314	92	-3	4.290	93	4.216	97	2	6.182	86	6.726	96	-8	9.316	91	9.372	86	-1
Atzerrikoak	2.219	10	1.862	8	19	322	7	123	3	162	1.011	14	265	4	282	886	9	1.474	14	-40
BIDAIARIEN SARRERAK	8.889	100	8.400	100	6	1.728	100	1.780	100	-3	2.963	100	2.980	100	-1	4.198	100	3.640	100	15
Estatukoak	8.343	94	8.024	96	4	1.637	95	1.767	99	-7	2.726	92	2.949	99	-8	3.980	95	3.308	91	20
Atzerrikoak	546	6	376	4	45	91	5	13	1	600	237	8	31	1	665	218	5	332	9	-34
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,48		2,64		-6	2,67		2,44		9	2,43		2,35		3	2,43		2,98		-18
BETETZE-MAILA PLAZAKA	19,53		22,77		-14	21,50		22,50		-4	19,40		21,22		-9	18,84		24,03		-22
BETETZE-MAILA GELAKA	21,57		24,14		-11	23,99		22,55		6	21,84		22,28		-2	20,40		26,26		-22

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp